



Ayuntamiento de OYÓN-OION  
OYÓN-OIONgo Udala

## UDALAREN OSOKO BILKURA

### Bileraren akta

2024ko otsailaren 14ko, asteazkeneko, bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Ohiko saioa

Data: 2024ko urtarrilaren 17a, asteazkena.

Ordua: 20:00.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) alkate jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Eratzearen orduan ez daudenak: familia-arrazoiengatik, arrazoi pertsonalengatik.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bertaratu da saiora, idazkari gisa.

Saioa alkate-udalburuak deitu du, arauk ezarritako aurrerapenarekin eta publikitatea eginda, eta honako honen arabera:

#### Gai-zerrenda

1. 2023ko abenduaren 13ko aurreko ohiko bilkurako akta onestea.

#### Ebazteko gaiak

2. **Hezkuntza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen Informazio Batzorde Irizpen-emailea (energia-jasangarritasunerako).**
  - 2.1. Aisialdiko ortu librea izendatzeko zozketa.
3. **Gizarte-ongizate, Berdintasun, Osasun eta Elkarte Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**
4. **Turismo, Gazteria eta Jai Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**
5. **Kultura, Euskara eta Kirol Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Informazio Batzorde Irizpen-emailea (Kontuen berezia)**
  - 6.1. 2023 ekitaldiko aurrekontu orokorraren luzapena.
  - 6.2. Zuzenketak onartzeari edo ez onartzeari buruzko erabakia eta 2024 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorraren hasierako onespena.

#### Udaleko gobernu-organoen kontrola eta fiskalizazioa

7. Abenduaren 13tik saio hau deitu den egunera arte emandako alkatetzaren ebazpenen berri-emate laburra.
8. Batzordeburuek beren jarduketan berri ematea.

**Azken puntua) Galde-eskeak.**

*Udalbatzaren 20024 – I- 17ko bilkurako akta;*



Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira. Saioa grabatu egin da eta zuzenean eman da, 2023ko uztailaren 5eko saioan hartutako erabakia gauzatzuz.

## **1. 2023ko abenduaren 13ko aurreko ohiko bilkurako akta onestea.**

Alkate jaunak aktari oharrak egitera gonbidatu ditu zinegotzi jaun-andreak. Ez dira egin.

Honako hau adostu da:

- 1) Onestea 2023ko abenduaren 13ko aurreko ohiko bilkurako akta.

Aldeko 11 (hamaika) boto; Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

## **Ebazteko gaiak**

### **2. Hezkuntza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen Informazio Batzorde Irizpen-emailea (energia-jasangarritasunerako).**

#### **2.1. Aisialdiko ortu librea izendatzeko zozketa.**

Aisialdiko ortu libre bat izendatzeko zozketa poltsan zenbakiak sartu eta ateratzeko prozeduraren bidez egin da. 10 zenbakia atera da. Horrenbestez, ortua Idoia Ocejo Tapiari izendatuko zaio. Hurrengo zenbatik aurrera, hau da, 11tik aurrera, itzarote-zerrenda bat sortuko da, ortu-eskatzaileak antolatzeko.

### **3. Gizarte-ongizate, Berdintasun, Osasun eta Elkarte Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**

#### **4. Turismo, Gazteria eta Jai Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**

#### **5. Kultura, Euskara eta Kirol Informazio Batzorde Irizpen-emailea.**

#### **6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Informazio Batzorde Irizpen-emailea (Kontuen berezia)**

#### **6.1. 2023 ekitaldiko aurrekontu orokorraren luzapena.**

Ekitaldi bakoitzaren urtarrilaren 1ean toki-entitateek ez badute aurrekonturik onartuta eta argitaratuta, legeak ezartzen du aurrekoaren indarraldia automatikoki luzatuko dela. Nolanahi ere, alkatetzaren ebazpen bat eman da, honako eduki honekin:

Gaia: 2023 ekitaldiko aurrekontu orokorraren luzapena.



Data: 2023ko abenduaren 18a.

Aurrekariak:

- 1) Ezinezkoa da abenduaren 31 baino lehen hurrengo ekitaldiko aurrekontua 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzeko behar diren izapideak egitea.
- 2) Kontu-hartzailetzaren txostena, gaur egun indarrean dagoen udal-aurrekontuaren hurrengo ekitaldirako luzapenari eta dagozkion kreditu luzaezinen bajak.
- 3) Idazkaritzaren txosten-proposamena, aurrekontuaren kontrol-postuaren titularrak emandako informazioaren arabera.
- 4) Honako hauek aplikatu behar dira: Toki-ogasunak arautzen dituen legearen testu bateginaren 169.6 artikulua, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartua; apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 21.4 artikulua bigarren paragrafoa; Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 50. artikulua (Luzamenduaren araubidea); eta 2022ko ABUAren 14.5 artikuluko azken paragrafoa.
- 5) Erreferentzia: Ogas/Presupuestos/ PresuGen2022/ PresuGen2022/ Prorroga.

Hori horrela, honako hau ebatzen dut:

- 1) 2023 ekitaldiko aurrekontua luzatzea 2024rako, 2. aurrekarian aipatutako Kontu-hartzailetzaren txostenean adierazitako edukiarekin bat.
- 2) Aurrekontu-luzapena honako honetara egokituko da:
  - a. Ezarritako arautegiaren arabera luzatzen diren kredituen zenbatekoak amaitutako azken ekitaldi ekonomikoko azken egunean onetsitakoak balira legez ulertuko dira, hots, ekitaldi horretan baimendutako transferentzia, zabalkuntza eta gainerako aldaketak konputatu ondoren.
  - b. Aurreko ekitaldian amaitu beharreko edo ekitaldi horretan bakarrik hartuko ziren kredituez edo beste sarrera berezi edo ukituez finantzatu beharreko zerbitzuetarako edo eginkizun egitarauetarako kredituak ezin izango dira inoiz luzagarritzat hartu.
  - c. Konpromiso-kredituak berez sartuko dira luzatutako aurrekontuan.
  - d. Luzapena amaituta, behin betiko aurrekontuak onestutzat hartuko dira eta eraginak izango dituzte urtarrilaren 1etik; bertan jasotako kredituak, hasierako kreditutzat hartuko dira.
- 3) Ebazpen honen berri ematea Osoko Bilkurari, egingo duen hurrengo saioan.

Ebazpen hau 2023ko abenduaren 27ko ALHAAOn argitaratu zen.

## **6.2.Zuzenketak onartzeari edo ez onartzeari buruzko erabakia eta 2024 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorraren hasierako onespena.**

Aurrekariak

1. 2024 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorraren proiektua 2023ko abenduaren 21ean bidali zitzaizen zinegotzi guztiei.
2. Zuzenketak egiteko epe bat ezarri zen, eta 2024ko urtarrilaren 8an amaitu zen.
3. Horretarako ezarritako epean zuzenketak aurkeztu dituzte PSE-EE (PSOE) taldeak, 9.000 eurokoak, eta EAJ-PNV taldeak, 429.000 eurokoak.
4. Kontuen Batzorde Bereziaren 2024ko urtarrilaren 10eko saioan ez zen zalantzak argitzeko edo azalpenak emateko eskaerarik egin, eta zen aurrekontuari buruzko



- galderarik egin. Aurkeztutako zuzenketak ebaluatu ziren, eta zuzenketei eta aurrekontua onesteari buruzko proposamen bat egin zen.
5. Taldeek aurkeztutako zuzenketei buruzko alkatetzaren proposamena.
    - a. Partzialki onestea PSE-EE (PSOE) taldearen zuzenketa, eta gastuen egoera-orrian 5.000 euroko partida bat jartzea "Katuen koloniak kontrolatzea" kontzeptuarekin. Aurrekontua parekatzeko, 5.000 euro murriztuko da 929 – 500000 "Kreditu orokorra" partida, eta azken horren zenbatekoa 61.500 eurokoa izango da.
    - b. EAJ-PNV taldearen zuzenketak ezestea.
      - i. Ikastolako patioa egokitzea eta beste jarduketa batzuk egitea, 50.000 euro.
      - ii. Txakurrentzako aisialdi-eremu bat sortzea, 24.000.
      - iii. Padel-pistak estaltzea, 170.000 euro.
      - iv. Arroyo I-eko markagailua, 5.000 euro.
      - v. Udal-igerilekuetako taberna egokitzea, 180.000 euro.
    - c. Zuzenketei buruz proposatutako erabakiarekin, aurrekontuak gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu-parekatzeari eusten dio, eta finantza-orekari eusten zaio aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzen dela bermatzeko.
  6. Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 6.-12., 14., 15. eta 16. artikulua aplikatu behar dira.
  7. Halaber, 7/85 Legearen 47.1 artikulua aplikatu behar da: aurrekontuaren hasierako onespeneraren erabakiak ez du gehiengo absoluturik behar.
  8. Kontu-hartzaitzaren txostena jaso da.

#### Proposamena:

1. Partzialki onestea PSE-EE (PSOE) taldearen zuzenketa, eta gastuen egoera-orrian 5.000 euroko partida bat jartzea "Katuen koloniak kontrolatzea" kontzeptuarekin. Aurrekontua parekatzeko, 5.000 euro murriztuko da 929 – 500000 "Kreditu orokorra" partida, eta azken horren zenbatekoa 61.500 eurokoa izango da.
2. Ezestea EAJ-PNV taldearen zuzenketak.
3. Hasiera batean onestea 2024 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorra.
4. Aurrekontua betetzeko udal-araudia onestea.
5. Lanpostuen zerrenda onestea.
6. Espedientea jendaurrean jartzea otsailaren 9ko 3/2004 Arauan (Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa) ezarritako epeetan.
7. Onesteko erabakia behin betikotzat hartzea, alegazioak aurkezten ez badira. Alegaziorik badago, 1 (bat) hilabeteko epean ebatzea.
8. Espedientea behin betiko argitaratzea eta Arabako Foru Aldundiari horren berri ematea.

Alkate jaunak gogorarazi du aurrekontu-proiektua abenduaren 21ean igorri zela, eta zalantzak edo galdera azaltzera edo azalpenak eskatzera gonbidatu ditu.

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Ez dut ezer galdetzeko.

Inclán Gil jauna (PP): Ez dut ezer galdetzeko.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Ez dut ezer galdetzeko.



Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Alkatezarekin egindako bileretan adosteko hamaika puntu aurkeztu ditut. Aseta nago babesleku klimatikoen gaia lantzen aritzeagatik. Kultura-arloko gaiak: ibilbide kulturalak; auto partekatuaren gaia lantzen joango gara, orain ezin da proposamenik egin. Agility geratzen zaigu. Katuen koloniak kontrolatzea osasungarritasunean egiten den inbertsioa dela ulertzen dut. Oreka bilatze aldera, abstenitu egingo naiz aurrekontuari buruzko erabakian.

Inclán Gil jauna (PP): batzordeetan eta gure zuzenketetan adierazi genuen moduan, ez zitzaigun gustatzen ekortzeko makina erostea, langile gehiago izatea baitakar, eta udal-aldizkarirako partida ez zaigu gustatzen, papera erabiltzea atzerapausoa da.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Aurkeztu diren zuzenketak bozka daitezen nahi dugu.

Tarragona Elejalde jaunak (EAJ-PNV) aurrekontuaren zuzenketak bereizita bozkatzearen eskaera bozkatu da.

Aldeko 6 (sei) boto; José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Abstentzioak 5 (bost): José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion) eta Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion).

PSE-EE (PSOE) taldearen zuzenketa bozkatu da, alkatezak partzialki baietsia, eta gastuen egoera-orrian 5.000 euroko partida bat jartzea dakarrena "Katuen koloniak kontrolatzea" kontzeptuarekin. Aurrekontua parekatzeko, 5.000 euro murriztuko da 929 – 500000 "Kreditu orokorra" partida, eta azken horren zenbatekoa 61.500 eurokoa izango da.

Aldeko 11 (hamaika) boto; Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Zuzenketa onetsi da.

EAJ-PNV taldearen zuzenketak bozkatu dira.

Ikastolako patioa egokitzea eta beste jarduketa batzuk egitea, 50.000 euro.

Txakurrentzako aisialdi-eremu bat sortzea, 24.000 euro.

Padel-pistak estaltzea, 170.000 euro.

Arroyo I-eko markagailua, 5.000 euro.

Udal-igerilekuetako taberna egokitzea, 180.000 euro.



Aldeko 5 (bost) boto; José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Rosa Vázquez Iglesias (PP).

Aurkako 5 (bost) boto: Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion) eta Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion).

Abstentzioak 1 (bat); Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Bozketaren emaitza berdinketa da; horregatik, berriro bozkatu da eta emaitza hau izan da:

Aldeko 5 (bost) boto; José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Rosa Vázquez Iglesias (PP).

Aurkako 5 (bost) boto: Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion) eta Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion).

Abstentzioak 1 (bat); Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Berdinketak bere horretan jarraitzen duenez, alkatearen kalitateko botoak erabakiko du. EAJ-PNV taldearen zuzenketak ezetsi egin dira.

Aurrekontuaren erabakiari buruzko alkatetzaren proposamena bozkatu da:

Aldeko 5 (bost) boto: Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion) eta Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion).

Aurkako 5 (bost) boto; José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Rosa Vázquez Iglesias (PP).

Abstentzioak 1 (bat); Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Bozketaren emaitza berdinketa da; horregatik, berriro bozkatu da eta emaitza hau izan da:

Aldeko 5 (bost) boto: Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion) eta Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion).

Aurkako 5 (bost) boto; José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Rosa Vázquez Iglesias (PP).

Abstentzioak 1 (bat); Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Berdinketak bere horretan jarraitzen duenez, alkatearen kalitateko botoak erabakiko du. Alkatetzaren proposamena onetsi da.

Hartutako erabakiaren testu osoa transkribatu da:



### Aurrekariak

1. 2024 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorraren proiektua 2023ko abenduaren 21ean bidali zitzaizen zinegotzi guztiei.
2. Zuzenketak egiteko epe bat ezarri zen, eta 2024ko urtarrilaren 8an amaitu zen.
3. Horretarako ezarritako epean zuzenketak aurkeztu dituzte PSE-EE (PSOE) taldeak, 9.000 eurokoak, eta EAJ-PNV taldeak, 429.000 eurokoak.
4. Kontuen Batzorde Bereziaren 2024ko urtarrilaren 10eko saioan ez zen zalantzak argitzeko edo azalpenak emateko eskaerarik egin, eta zen aurrekontuari buruzko galderarik egin. Aurkeztutako zuzenketak ebaluatu ziren, eta zuzenketei eta aurrekontua onesteari buruzko proposamen bat egin zen.
5. Taldeek aurkeztutako zuzenketei buruzko alkatetzaren proposamena.
  - a. Partzialki onestea PSE-EE (PSOE) taldearen zuzenketa, eta gastuen egoera-orrian 5.000 euroko partida bat jartzea "Katuen koloniak kontrolatzea" kontzeptuarekin. Aurrekontua parekatzeko, 5.000 euro murriztuko da 929 – 500000 "Kreditu orokorra" partida, eta azken horren zenbatekoa 61.500 eurokoa izango da.
  - b. EAJ-PNV taldearen zuzenketak ezestea.
    - i. Ikastolako patioa egokitzea eta beste jarduketa batzuk egitea, 50.000 euro.
    - ii. Txakurrentzako aisialdi-eremu bat sortzea, 24.000.
    - iii. Padel-pistak estaltzea, 170.000 euro.
    - iv. Arroyo I-eko markagailua, 5.000 euro.
    - v. Udal-igerilekuetako taberna egokitzea, 180.000 euro.
  - c. Zuzenketei buruz proposatutako erabakiarekin, aurrekontuak gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu-parekatzeari eusten dio, eta finantza-orekari eusten zaio aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzen dela bermatzeko.
9. Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 6.-12., 14., 15. eta 16. artikulua aplikatu behar dira.
10. Halaber, 7/85 Legearen 47.1 artikulua aplikatu behar da: aurrekontuaren hasierako onespeneren erabakiak ez du gehiengo absoluturik behar.
11. Kontu-hartzaitzaren txostena jaso da.
12. Alkatetzaren proposamena.

Honako hau adostu da:

1. Partzialki onestea PSE-EE (PSOE) taldearen zuzenketa, eta gastuen egoera-orrian 5.000 euroko partida bat jartzea "Katuen koloniak kontrolatzea" kontzeptuarekin. Aurrekontua parekatzeko, 5.000 euro murriztuko da 929 – 500000 "Kreditu orokorra" partida, eta azken horren zenbatekoa 61.500 eurokoa izango da.
2. Ezestea EAJ-PNV taldearen zuzenketak.
3. Hasiera batean onestea 2024 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorra.
4. Aurrekontua betetzeko udal-araudia onestea.
5. Lanpostuen zerrenda onestea.
6. Espedientea jendaurrean jartzea otsailaren 9ko 3/2004 Arauan (Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa) ezarritako epeetan.
7. Onesteko erabakia behin betikotzat hartzea, alegazioak aurkezten ez badira. Alegaziorik badago, 1 (bat) hilabeteko epean ebaztea.
8. Espedientea behin betiko argitaratzea eta Arabako Foru Aldundiari horren berri ematea.

*Udalbatzaren 20024 – I- 17ko bilkurako akta;*



## Udaleko gobernu-organoen kontrola eta fiskalizazioa

### **7. Abenduaren 13tik saio hau deitu den egunera arte emandako alkatetzaren ebazpenen berri-emate laburra.**

Alkateak Udalbatzari igorri dizkio 2023ko abenduaren 12ko 296 ebazpenetik abenduaren 22ko 310 ebazpenera arteko alkatetzaren ebazpen guztiak. Eta urtarrilaren 9ko 1. ebazpenetik urtarrilaren 12ko 11. ebazpenera arte, zinegotziek udal-administrazioaren garapenaren berri izan dezaten, gobernu-organismoak kontrolatze eta fiskalizatze aldera.

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Labrazako parke eolikoaren izenari buruzko ohar bat egin du.

### **8. Batzordeburuek beren jarduketan berri ematea.**

Martínez Flores andreak (EH Bildu Oion) du Turismo, Gazteria eta Jai Informazio Batzorde Irizpen-emailearen batzorde-burutza, eta bere batzordearen jarduketan berri eman du.

Martínez Flores andrea (EH Bildu Oion): San Vicente eta San Anastasio jaietako programan ordutegiak doitu dira. Suak Siloko partzelatik botako dira. Puro Relajo taldea programatu da jaietako larunbatean.

Espero dugu otsailean Bazterra aretoa Gazteleku gisa gaitu ahal izatea. Eta Amaitzear dagoen aretoa izango da Bazterra areto berria.

Frías Del Val andreak (EH Bildu Oion) du Hezkuntza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen Informazio Batzorde Irizpen-emailearen (energia-jasangarritasunerako) batzorde-burutza, eta jakinarazi du amaitu direla Ramiro de Maeztuko patio inklusiboaren lanak, ñabarduraren bat falta bada ere. Eta *pump truck* pistako lanak erritmo onean doaz aurrera.

Saenz Verano andreak (EH Bildu Oion) du Gizarte-ongizate, Berdintasun, Osasun eta Elkarte Informazio Batzorde Irizpen-emailearen batzorde-burutza, eta adierazi du laster ordainduko zaizkiela dirulaguntzak bizilagunen elkarteei. PADI zerbitzua bertan behera uztearen berri eman du. Lezako ospitalean emango dituzte PADI zerbitzua eta helduentzako zerbitzuak.

Halaber, hainbat mahaitan (inklusioa, partaidetza...) parte hartu dutela jakinarazi du.

Bengoechea Múgica jaunak (EH Bildu Oion) du Kultura, Euskara eta Kirol Informazio Batzorde Irizpen-emailearen batzorde-burutza, eta egitasmo hauek gogorarazi ditu: udako zinemaren programazioa, euskara egunetako jarduerak, eta eskubaloia eta pilotako klubekin sinatutako hitzarmenak. Era berean, Sociedad Deportiva Oyonesa taldeko Pedro Antonio *Ñoño* tresnazain izandakoari bizirik dagoen bitartean egindako omenaldiaren berri eman du.



Ayuntamiento de OYÓN-OION  
OYÓN-OYONgo Udala

### **Azken puntua) Galde-eskeak.**

Inclán Gil jauna (PP): Noiz hasiko da PADI zerbitzua?

Alkate jauna: Ez dago eperik. Arabako Errioxako ESItik jakinarazi digute dena erosita dagoela eta dentista eta hortz-higienista bat kontratatu behar dutela.

Saenz Verano andrea (EH Bildu Oion): Urtarrila aipatu ziguten...

Alkate jauna: ESIk Leire Sáenzen iradokizun bat onartu du eta ikastetxean eta ikastolan hasi eta ikasle guztien baheketa egingo da.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Nire ustez, ez da zabaldu Pedro Antoniori egin zitzaion omenaldia. Niri eta beste batzuei bertan egotea gustatuko zitzaigukeen.

Bengoechea Múgica jauna (EH Bildu Oion): Omenaldia Oyonesak egin zuen, eta nire ekimena izan zen. Nire ustez, omenaldiak bizirik egon bitartean egin behar dira.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Gogobeteta eta harro gaude jaiak ondo atera izanaz, jai-eredua gurearen antzekoa delako.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 20:55ean (bilkura CCXXXII urteko Elurkorreko hogeita seigarrenaren, hirugarren hamarkadaren seigarren eguneko 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2024ko urtarrilaren 31n.

Udaleko idazkaria:

Alkatetzak O. E.: